



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko azaroaren 22a

133. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko zuzenketa (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da populazioaren azterketa xehatua diseina eta gauza dezan, sexu-prestakuntzari eta -hezkuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko. Osasun Batzordeak onetsia (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat –banku-fundazioa izateari uzten dionean– arau-esparru egokiena zein den aztertzeke ponentziaren txostena. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak onetsia (6. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua.

OSOKO ZUZENKETA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketa. Proiektu hori 2021eko azaroaren 9ko 127. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

OSOKO ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, Nafarroako 2022rako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa, proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzeko eskatzen duena.

Zioen azalpena: Nafarroako 2022rako Aurrekontu Orokorren proiektua hurrengo zergaldian egin beharko den politika ekonomikoranzko iteera faltsua da, argi eta garbi. Ekonomiaren portaearak 2020tik ziurtasunik eza izan du ezaugarri nagusia, bai pandemiak eta ondoriozko krisiak eragindakoa, bai oraindik amaitu ez dugun suspertze ekonomikoaren prozesu gorabeheratsuari zor dioguna. Gaur une kezkarria bizi dugu, bat egin dutelako hazkundea arriskuan jartzen duten askotariko faktoreek; izan ere, berehalakoan konponduko ez diren arazoak sortu dituzte.

Edukiontzien eta horiek garraiatzeko itsasontzientzientzien gabeziak munduko merkataritza oztopatzen du azken hilabeteetan; portu askotan itxaron zerrenda luzeak sortu dira, ez atzera ez aurrera gelditu diren ontziek egunak ematen dituzte itxaroten; portu horietako batzuetan, batez ere Txinan, itxierak eta geldialdiak egiten dira COVID-19aren kasu bakar bat agertuz gero; pandemiaren

hedapenari aurre egiteko ezarri ziren mugak kendu ondoren, eskariaren gorakada urritasuna eragiten ari da lehengaietan, osagaietan (mikro-prozesadoreak barne) eta are energia horniduran ere.

Horren ondorio da ekoizpen kostuen inflazioa, erosketa-saskia osatzen duten ondasun eta zerbitzuen prezioetara ere hedatzen ari dena pixkanaka. Adituek zalantza egiten dute zailtasun horiek guztiak gainditu ahalko ote diren 2022. urteak aurrera egin baino lehen, eta industriaren pisu handiagoa duten herrialde eta eskualdeak ikusten ari dira nola beren ekonomiak bereziki kaltetzen dituen jokaleku honek. Hori gutxi balitz ere, pandemia indarberritu egin da. Kopuruak kezkatzeko modukoak dira Europako hainbat herrialdetan eta hasi dira kezkarriak izaten gure eskualdean ere.

Elementu horiek guztiak aurreikuspen ekonomikoak sakonean berrikustera eraman dituzte nazioarteko eta herrialdeetako erakunde nagusietako batzuk. Espainiako ekonomiaren kasuan — Nafarroako ekonomia, bere osagai industrialaz gainera, biziki baldintzatzen baitu Espainiako ekonomia ere —, aurreikuspenek aldaketa oso nabarmenak izan dituzte. Hala, hazkundearen aurreikuspenak portzentaje-puntu bat baino gehiago egin du behera azken asteetan. Nazioarteko Diru Funtsak edota Europako Batzordeak beheratu dute. Azken horrek % 4,6ko hazkundera murriztu du 2021eko itxierarako aurreikuspena, hau da, lehengo proiektioek baino 1,6 puntu gutxiago aurreikusi ditu. Era berean, azaro honetan, Funcasek prestatutako Espainiako Ekonomiari buruzko Aurreikuspenen Panelak 2021erako hazkunde-aurreikuspenaren murrizketa latza argitaratu du, % 4,8ra jaitsi baitu. Panel horrek gure herrialdeko 20 azterlan-zerbitzuren ikuspegiak jasotzen ditu.

Horrelakorik batere ez da kontuan izan proiektu hau prestatzean. Hartara, oinarri duen taula makroekonomikoaren zenbakiak ez dira inondik

ere egiazkoak. Ez hazkunderari dagokionez baka-
rrik, inflazioari begira ere ez dira egiazkoak. Aurre-
kontu makroekonomiko guztiz eztabaidagarri
horiei eustea zuhurtzia falta da Nafarroako
2022rako Aurrekontu Orokorren proiektua presta-
tzeko garaian, eta horixe da osoko zuzenketa aur-
keztea justifikatzen duten argudioetako bat.

Aurreikuspenen batezbestekoa baikorxeagoa
da 2022rako, nahiz eta erakunde batzuek behe-
ranzko aurreikuspenak ere argitaratu berri dituz-
ten. Alabaina, hemen badago beste ziurgabeta-
sun-osagai bat halakotzat aitortzen ez dena
proiektuaren taula makroekonomikoan. 2022ko
hazkunde handiagorako baldintza bakarra ez da
egungo arazoak konpontzea, horrez gain Europa-
ko funtsak etorri eta horiek xurgatzeko ahalmena
izan behar dugulako. Horrek esan nahi du, era
berean, hurrengo urteko makroeboluzioan eraba-
kigarria izanen dela Espainiak arrakasta izatea
Gobernuaren eta eragile sozialen arteko akor-
dioen bila, Europar Batasunak pentsioetan eta lan
merkatuan eskatzen dituen egiturazko erreforma
handiei ekiteko, funtsak liberatu ditzan. Oraingoz,
ez da halako akordiorik lortu. Eta dagoeneko badi-
ra ahotsak Europan, Alemaniako Gobernu
aholkatzen duen ekonomialari kontseilua tartean,
zalantzak agertzen dituztenak Espainiak aginduta-
ko erreformen bideragarritasunaz eta eskuratuko
zaizkion funtsak baliatzeko etorkizunean izanen
duen gaitasunaz. Funtsak eskatzeko eta proiektu-
ak azkar, osorik eta eraginkortasunez gauza-
tzeko edozein ahuleziaren ondorioz Next Genera-
tion planeko laguntzek eragin txikiagoa izanen
dute hazkunderan.

Gai horri buruz, azpimarratu behar da, iragan
urtean gertatu zen bezala, proiektu berriak ez
dituela aintzat hartzen Nafarroak ekonomian posi-
zio lehiakorrari eusteko behar dituen azpiegitura
handiak. Abiadura Handiko Trena eta Nafarroako
Ubidea Nafarroako ekonomiari garrantzizko onura
dakarkioten azpiegituretako inbertsio publikoak
dira. Aurrekontuko beste partida batzuk ez bezala,
enpleguaren, BPGaren eta inbertsio pribatuaren
gaineko eragin biderkatzaile nabarmeneko gastu
atalak dira, edo, hobeki esanda, inbertsio atalak.

Arrazoi horiengatik, bi proiektuok Nafarroaren-
tzat garrantzi estrategiko handia duten proiektu-
tzat hartu behar lirarteke. Ez dira horrela aurkeztu
aurrekontu proiektuan, ordea. Eta are gehiago, hi-
tz egiten ari bagara, Nafarroako Gobernuak harro
esan duenez, historiako aurrekonturik handienaz,
gastu ahalik eta handienera iritsi nahian prestatu
den horretaz.

Horren harira, oker bat da aurrekontu hedako-
rragoak edo zenbateko handiagokoak aurrekontu

ezin hobeeekin nahastea, edo aurrekontuak ontzat
ematea gasturik handiena onartzen dutenak dire-
lako, besterik gabe. Aurrekontuak onak diren ala
ez erabakitzeke, ez da bakarrik begiratu behar
zenbat gastatzen den, baizik eta zertan eta nola
gastatzen den eta aurrekontuko gastua nola finan-
tzatuko den.

Ariketa hori eginda, agerian geratzen da
proiektua ez dela ona. Besteak beste, aurrekon-
tuak egiturazkoa bilakatzen duelako krisiak eragin-
dako gastu-hazkundera, hein handian. Hori ez da,
jakina, estrategiarik egokiena, goiz edo berandu
egin behar den kontu publikoen kontsolidazioari
begira. Alderantziz, egiturazko defizita handitzeak
kontu publikoen jasangarritasuna baldintzatuko du
hurrengo urteetan. Eta hutsegite izugarria litzateke
akats hori kontuan ez hartzea aurrekontu-saldoa-
ren zati ziklikoak susperraldi ekonomikoaren
babesean hobera eginen duela argudiatuta. Are
gehiago, suspertze hori ziurgabetasunez eta zen-
bait arriskuz inguratuta baldin badator.

Navarra Sumaren iritziz, proiektu hau oso
urrun dago Nafarroak 2022ko ekitaldirako behar
lukeen aurrekontu-politikatik. Hala, adibidez,
Navarra Sumak proposatutakoa bezalako errefor-
ma fiskalik ezean, Nafarroako familiak eta enpre-
sak zamatzen dituen zerga esparru batean bermat-
zen jarraitzen duten aurrekontuak ditugu, eta
horrek gure ekonomiari murriztu egiten dizkio
lehiakortasuna eta etorkizuneko hazkunderako
ahalmena, baita, ondorioz, diru-sarrerara publiko
handiagoak lortzeko tartea ere; horrek esan nahi
du enplegua gutxiago sustatzea, garapen ekono-
miko eta sozialerako edozein strategiaren gil-
tzarri izan arren. Aurrera egiten badute, aurrekon-
tu hauek ez dute hauspotuko gizarteratze
errentaren eredu egokia, laguntzaren hartzailen
menpekotasun egoera kronifikatzen ez duena eta
gizarteratzeko eta laneratzeko pizgarriak ematen
dituena. Gainera, apenas gaintzen duten % 15a,
oinarrizko laguntzara bideratzen den osasun arlo-
ko gastuaren partidan. Beraz, ez da inola ere
aurrera eginen eredu aldaketan. Eta ez diote eran-
tzunen Foru Komunitateko toki entitateetako
bakoitzaren premia guztiak aseko dituen toki
finantzaketako eredu bati ere. Gainera, baztertu
egin da adostasuna bilatzea guztientzat gogobete-
garriak diren akordioak lortzeko bide bakar gisa.

Berriz ere aurrekontuek ez diote epe luzeari
begiratu, epe laburrera begira jarriko dira eta
epelaburkerian oinarritutako planteamenduei
jarraituko diete, etekin politikoen eta hauteskunde
emaitzen bila. Aurrekontu hauek gehiago eran-
tzunen diete formalki Gobernuako kideak diren
talde politikoen eskakizun alderdikoiei, baina baita

EH Bildu bezalako talde politikoenei ere, horien botoak ezinbestekoak baitira aurrekontu hauek aurrera ateratzeko. Boto horiek diskurtsoaren eta printzipioen aldetik duten kostuari erreparatu ere ez zaio egin. Izan ere, boto horien beharra dago, negoziatu egiten dira, eta amore emanda lortzen dira, eta horrek guztiak zerga gehiago, garapen kaskarragoa, lanpostu gutxiagoren sorrera eta arlo sozialaren aldeko apustu ahulagoa dakartza.

Azken batean, foru lege proiektu honek jasotzen dituen aurrekontuak oso urruti daude Nafa-

rroak gaur behar duen horretatik, beste arrazoi batzuen artean, ez direlako oinarritzen taula makroekonomiko errealista batean, 2022an gure ekonomiak nondik nora jo dezakeen islatzen duen batean; eta horrek indargabetu egiten du proiektuan aurkeztutako zenbakiak. Ez dira aurrekontu egokiak ezta dinamika positibo bat sortzeko ere, lehiakortasun maila onak berreskuratzea ahalbide-tuko duena, Nafarroak berriz har dezan erreferentearen lekua hainbat arlotan, horrenbestez herritarrentzat gogobetegarriak diren kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzen jarraitu ahal izateko.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da populazioaren azterketa xehatua diseina eta gauza dezan, sexu-prestakuntzari eta -hezkuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko azaroaren 17an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da populazioaren azterketa xehatua diseina eta gauza dezan, sexu-prestakuntzari eta -hezkuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Eremu desberdinetako populazioaren ikerketa xehatua diseina eta gauza dadin, eremu bakoitzeko biztanleek sexu-prestakuntzari eta -hezkuntzari dagokienez zer premia dituzten jakiteko eta langile horien plantillak benetako beharretara egokitzeko, eta sexu-hezkuntzako eta sexologiako berariazko prestakuntza eskatu dadin lanpostu horiek eskuratu ahal izateko.

2. Lan-esparruak sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroetatik haratago zabaltzea, Oinarrizko Osasun Laguntzara, sistemaren oinarrian egon daitezen, herritarrei gertutasuna eta sarbidea errazte aldera.

3. Bereziki gazteei zuzenduriko jarduketak bul-tzatzea Nafarroako osasun barruti guztietan, baina bai eta askotan aintzat hartzen ez diren populazio-sektoreei zuzendurikoak ere: desgaitasuna edo bestelakotasun funtzionala duten pertsonak, pertsona migranteak, adinekoak eta abar.

4. Foru agindu baten bidez garatu zen Sexu- eta ugalketa-osasunaren Batzorde Teknikoa berrabiaraztea, tresna egokia baita sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazio sanitarioen antolamendua ezartzen duen 103/2016 Foru Dekretuan planteatzen diren gai guztiak garatzeko".

Iruñean, 2021eko azaroaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat –banku-fundazioa izateari uzten dionean– arau-esparru egokiena zein den aztertzeke ponentziaren txostena.

LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSIA

Legebiltzarreko 114. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Kutxa Fundazioarentzat –banku-fundazioa izateari uzten dionean– arau-esparru egokiena zein den aztertzeke ponentziak onetsitako txostena, zeina Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak onetsi baitzuen 2021eko azaroaren 17an.

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

TXOSTENA

Ponentzia 2021eko martxoaren 9an eratu zen. Ponentzia egun hauetan bildu da: apirilaren 16an eta 23an, maiatzaren 7an eta 12an, ekainaren 18an, irailaren 15ean eta 27an, eta urriaren 4an eta 25ean. Bilera horietan ponentziaren helburuaz eztabaidatu da eta azaroaren 2ko bileran eranskin gisa erantsen den txostena onetsi da.

Aipatu eranskinean legegintza ekimeneko proposamen bat dago, Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzeko, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak onetsi ondoren Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak xedatutakoari jarraikiz izapidetu dadin.

Ponentziaren txostena eta eranskina onetsi dira, talde parlamentarioen ordezkarien gehiengoak aldeko botoa eman baitu.

ERANSKINA

Foru Lege proposamena, Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

Foru lege honen xedea da Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legeak ezarritakoa aldatzea, Nafarroako Foru Zuzenbidearen babesean eraturako fundazioen gain Nafarroako Foru Komunitateak duen eskumen eskusiboa oinarri.

Aipatu foru legearen xedeak eta edukiak beren indarrari eusten diote Nafarroako aurrezki kuxetatik sortutako fundazioek banku entitate izateari utzi eta gero bil lezaketen izaera bereziarengatik, horrek ez baitu justifikatzen halakoak fundazio arrunt gisa arautzea, ez beren osotasunean behintzat; dena den, haiek ordezeko gisa aplikatzen jarraituko da foru lege honetan jaso ez diren gaietarako.

Argitaratu zenetik igaro den denbora eta egingdako arau-aldaketak kontuan hartuta, ordea, beharrezkotzat jotzen da hura egungo errealitate juridiko eta sozialera egokitzea.

Horregatik, honako aldaketa hau egin behar zaio, egokitu behar delako apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legeak Foru Berrian egingdako aldaketara, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea eta Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legea.

1. artikulua. Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzea.

Aldaketa hauek egiten zaizkio Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legeari:

Ba. Beste testu bat ematen zaio atarikoari, eta honela gelditzen da:

“Foru lege honen xedea da otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzea; lege horrek aurrezki kutxen eraldaketatik sortutako fundazioen zuzendaritza organoak arautzen ditu.

Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Konpilazioa edo Foru Berria aldatu eta eguneratzen duen apirilaren 4ko 21/2019 Foru Legea onetsi ondoren funtsean aldatu da fundazioen araubide juridikoa, eta horrek eragin du Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legea onestea, zeinak lehendik dagoen araudia Foru Berriari egokitzen dion eta Foru Berriaren 42. legearen babesean eratutako fundazio guztiei aplikatu beharreko araudi substantiboa biltzen duen.

Araudi berria gorabehera, 2/2014 Foru Legeak bere indarrari eusten dio, aurrezki kutxen eraldaketatik sortutako fundazioek izaera berezia dutelako.

Nafarroako kasuan, Nafarroako Kutxa Fundazioa Nafarroako Kutxaren oinordekoa da. Azken horrek nortasun propiodun kreditu erakundea izateari utzi zion bere finantza-negozioa Banca Cívica banketxeari eskualdatzean —gero Caixabankek xurgatuko zuen— eta banku fundazio bilakatu zen Nafarroako Kutxaren ongintza- eta gizarte-ekintzaren muina izandakoa kudeatzeaz arduratzeke, Kreditu Erakundeak Berregituratzeari eta Suntsiarazteari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legea aplikatuta.

Caixabank SAK Bankia SA xurgatu eta biek bat egin izana Valentziako Merkataritza Erregistroan inskribatzearen ondorioz, 2021eko martxoaren 26az geroztik Nafarroako Kutxa Fundazioak jada ez ditu betetzen aurrezki kutxei eta banku fundazioei buruzko araudiak banku fundazioa izateko eskatzen dituen baldintzak. Beraz, fundazio arrunt bilakatu behar da.

Kontuan izanda Nafarroako Kutxa Fundazioaren jatorria eta haren ezaugarri berezia, justifikatuta dago fundazio horiek bestelako araubidea izatea, parte-hartze eta kontrol publiko zabalagoarekin eta gardentasun-arauei lotua. Horregatik guztiagatik, bidezkoa da Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen

otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzea egun-go errealtate juridiko eta sozialera egokitzeko”.

Bj. Beste testu bat ematen zaio 3. artikuluari, eta honela gelditzen da:

“3. artikulua. Patronatuaren osaera.

1. Patronatua honako hauek osatuko dute, patronatukide gisa:

a) Bost kide Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hautatuak. Foru parlamentari bakoitzak hiru hautagai bozkatu ahalko ditu, gehienez ere.

b) Nafarroako Gobernuak hautaturiko hiru kide.

c) Iruñeko Udalaren Osoko Bilkurak hautaturiko kide bat.

2. Hautagaiek ospe profesional egiaztatua, jakintza eta esperientzia izan beharko dituzte fundazioaren xedeekin zerikusia duten arloetan. Estatutuetan zehaztuko da nola.

3. Beste edozein araudi indardun aplikatzearen ondorioz izan ditzaketen bateraezintasunez gainera, ezin izanen dira patronatuko kide hautatu edo izendatu egoera hauetan dauden personak:

a) Konkurtsopean eta desgaituta daudenak, desgaituntza aldia amaitu arte.

b) Kargu publikoetan aritzeko desgaituntza orokorra edo berezia dakarren zigorrera kondenatuak.

c) Administrazio publikoen zerbitzuko langileak, fundazioei dagozkien jarduerekin zuzeneko zerikusia duten eginkizunak baldin badituzte.

d) Karguetarako hautatzen dituzten unean edo karguetan aritu bitartean fundazioarekin zorrak dituztenak, mugaeguneratuak eta galdagarriak, edozein motatakoak.

e) Fundazioaren aurka auzitegietan edozein erreklamazio dutenak, salbu eta lan-arloko erreklamazioak edo patronatuko kideek beren karguak egikaritzeari buruz aurkezten dituztenak.

f) Lau merkataritza-sozietate edo entitate korporatibotan baino gehiagotan administrazio kontseiluko edo pareko organoko kide direnak. Salbuesten dira Fundazioaren ordezkari bezala edo hark hautaturik betetzen diren karguak.

g) Obra-, zerbitzu- nahiz hornidura-kontratuaren bidezko edo ordaindutako lanaren bidezko lotura dutenak fundazioarekin, edo fundazioak kapitalaren ehuneko 20tik gorako partaidetza duen sozietateekin, edo parte hartutako banku entitatearekin. Bateraezintasun bera aplikatuko zaie honako hauei: ezkontide eta parekoei; eta

sozietateei, baldin eta patronatukideak, zuzenean nahiz zeharka, bakarrik, ezkontidearekin batera nahiz aurreko edo ondorengo ahaideekin batera, ehuneko 20tik gorako partaidetza badu, edota horietakoren batek lehendakari, kontseilari delegatu edo pareko kargua badu.

h) Patronatukide, lehendakari, kontseilari, administratzaile, zuzendari, kudeatzaile, aholkulari edo antzeko kargu edo lanpostua dutenak fundazioak parte hartutako banku entitatean, edo parte hartutako banku taldearen kontrolpeko beste entitate batzuetan, edo izaera bereziko beste fundazio batean nahiz beste banku fundazio batean.

i) Hautespren bidezko edozein kargu politikoa dutenak Europar Batasuneko, Estatuko, autonomia erkidegoetako edo Nafarroako Foru Komunitateko edo tokiko erakundeetan.

j) Goi kargua dutenak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan, Estatuko Administrazio Orokorrean, Toki Administrazioan edo horiekiko lotura edo menpekotasuna duten sektore publikoko entitateetan, zuzenbide publikokoak nahiz pribatukoak izan.

k) Betearazpen edo zuzendaritza kargua dutenak alderdi politikoa, enpresa elkarte edo sindikatu batean.

Artikulu honetako g), i), j) eta k) letretan aipatutako bateraezintasunek iraun egiten dute lotura edo kargua amaitu eta gero, hori amaitzen den egunetik bi urte igaro arte.

4. Patronatuko lehendakaria gehiengo osoz eta bozketa sekretuaren bidez hautatuko da patronatuko kideen artean.

5. Patronatuaren bileretan izanen dira, halaber, zuzendari eta idazkari izateko izendatutako pertsonak, salbu eta zuzenean dagozkien lan-aferekin direnean hizpide. Pertsona horiek hitza izanen dute, baina botorik ez. Ez zuzendaria ez idazkaria ez dira patronatu-kide izanen.

6. Patronatuaren osaera ahalik eta paritarioena izanen da. Horretarako, erakunde proposatzaile guztiek parekidetasun irizpideak erabiliko dituzte beren proposamenetan”.

Hiru. Beste testu bat ematen zaio 4. artikuluari, eta honela gelditzen da:

“4. artikulua. Patronatukideak izendatzea eta karguaz jabetzea.

Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak babesletzari jakinaraziko dizkiote patronatukide kargurako hautaturiko pertsonen izenak. Horiek kargua onartu beharko dute

Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legean ezarritako eran, izendatzen dituztenetik hasita hilabeteko epea igaro baino lehen”.

Lau. Beste testu bat ematen zaio 5. artikuluari, eta honela gelditzen da:

“5. artikulua. Patronatu-kide karguaren iraunaldia.

Patronatukideek sei urte iraunen dute karguan, eta ezin izanen dira berriz hautatu hurrengo agintaldian”.

Bost. Aldatu egiten da 6. artikuluko g) letra, eta honela idatzita gelditzen da:

“g) Fundazio bereziaren iturri den erakunde nagusia sortu zenez geroko dokumentazio osoa zaintzea. Gainera, kasua bada, beharrezkoak diren zuzemenak egiten ditu jatorriaren arabera dagokion dokumentazioa berreskuratuzeko”.

Sei. Beste testu bat ematen zaio 8. artikuluari, eta honela gelditzen da:

“8. artikulua. Patronatuaren ahalmenak.

1. Edozein araudi indardun aplikatuta egokitu ahal zaizkion ahalmenez gain, patronatuak honako ahalmen hauek ditu:

a) Patronatuak ahalmenak ditu fundazioaren gobernuarekin, ordezkaritzarekin eta administrazioarekin zerikusia duten gai guztiei buruz, estatutuetan jasotakoarekin bat.

b) Patronatuari dagokio fundazioaren estatutuak onetsi, aldatu eta interpretatzea, aurrez babesletzak nahitaezko txostena emanda. Estatutuak inola ere ezin dira izan foru lege honetan eta gainerako araudi indardunetan ezarritakoaren kontrakoak.

Estatutuak onesteko, aldatzeko eta interpretatzeko, patronatuko kideen gehiengo osoak hartutako erabakia beharko da.

Estatutuak, beren aldaketak eta interpretazioari buruzko erabakiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta fundazioaren web orrian argitaratuko dira.

c) Patronatuari dagokio aurrekontuak prestatzea eta ekitaldi bakoitzean fundazioaren urteko kontuak onestea patronatukideen gehiengo osoak hartutako erabakiaren bidez.

Aurrekontuetan jasotako gastu aurreikusiek ezin izanen dute ehuneko 25etik gorako igoerarik izan ekitaldirako aurreikusitako guztizko diru-sarrerekin alderatuta, non eta babesletzak berrazko baimena ematen ez duen.

Aurrekontuetan jasotako gastu aurreikusiek ezin izanen dute ehuneko 10etik gorako igoerarik izan aurreko ekitaldiko aurrekontuan jaso ziren gastu aurreikusiekin alderatuta, non eta babesleztzak berariazko baimena ematen ez duen.

Aurrekontuak eta urteko kontuak, onetsi eta gero, publikoak izanen dira.

d) Patronatuari dagokio fundazioaren urteko kontuak auditatuko dituen sozietatea izendatzea.

Izendapen hori eta auditoretzaren txostena publikoak izanen dira.

e) Jokaera Kode Etikoa onestea.

f) Fundazioaren egitura organikoa eta horren aldaketak onestea, bai eta zuzendaritza karguetan izanen direnak hautatzea ere.

g) Fundazio bereziaren dokumentazio osoa ordenatu, sailkatu eta kudeatzea, bai eta fundazioaren iturri izandako entitatearen edo entitateen dokumentazio osoa ere. Foru parlamentariak dokumentazio hori eskatu ahalko dute Parlamentuko Erregelamenduan ezarritako prozeduraren bidez. Halaber dokumentazio horrek Nafarroako gainerako erakunde publikoen eskura egon behar du. Eskuratzeko protokoloa prestatuko da eta patronatuko kideen gehiengoak onetsi behar du.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako ahalmenak ez dira inoiz ere delegatuko”.

Zazpi. II bis kapitulua gehitzen da. Testu hau izanen du:

“II bis KAPITULUA
Babesletza

9. bis artikulua. Babesletza: izaera eta eginkizunak.

1. Fundazioaren babesletza Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari dagokio. Ekonomia eta ogasun arloan eskumena duen departamentuaren bidez edo eskumena erregelamenduz esleitzen zaion departamentuaren bidez beteko du eginkizun hori.

2. Babesleztzak, araudi indarduna aplikatuta egokitzen zaizkion ahalmenez gain, honako ahalmen hauek izanen ditu:

a) Fundazioaren legezatasuna eta funtzionamendu ona zaintzea, estatutuen arabera fundazioak dituen helburuak egoki betetzen direla egiaztatuz eta interes orokorra lortu behar dela aintzat hartuz.

b) Fundazioaren ondarearen osotasuna, nahikotasuna eta errentagarritasuna zaintzea, eta

egiaztatzea ea fundazioaren baliabide ekonomikoak fundazioaren helburuak betetzeko erabili diren, estatutu hauetan eta legean ezarritako eran. Horretarako beharrezkoa den informazioa eskatu ahalko dio patronatuari.

c) Babesleztaren ordezkari bat izendatzea, fundazioaren kide anitzeko organoen bilkuretan parte hartu ahal dezan, hizpidearekin baina botorik gabe.

d) Bere babes eginkizuna betetzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatzea fundazioari.

e) Fundazioan ikuskapenak egitea: aldi behingoak, fundazioaren funtzionamenduari eta jarduerari buruzko arau orokorrak eta estatutueta-koak betetzen direla egiaztatzeko, eta bereziak, fundazioaren edozein jardura edo alderdi espezifikoren gainean.

f) Fundazioaren gobernu organoaren eginkizunetan behin-behinean aritzea, hura osatu behar duten pertsona guztiak falta badira, edozein arrazoi tarteko; eta fundazioa azkentzeko eskatzea.

g) Patronatukideen erantzukizuna eskatzeko akzioa egikaritzea legean jasotako kasuetan.

h) Fundazioaren organoaren egintzak eta erabakiak aurkaratzea, fundazioa arautzen duten legetako edo estatutuetako manuen kontrakoak direnean.

i) Fundazioaren bat-egiteetarako eta fundazioa azkentzeko baimenak eta patronatuak erabakiak hartzeko baimenak ematea estatutu hauetan eta legeetan aurreikusitako kasuetan.

j) Fundazioa likidatzeko prozesua kontrolatzea.

k) Legeek esleitzen dizkioten beste eginkizun guztiak.

l) Ekitaldirako aurreikusitako guztizko diru-sarrerak ehuneko 25eko aldeaz gainditzen dituzten gastuak baimentzea.

m) Aurreko ekitaldiko aurrekontuan jasotako gastu aurreikusiekin alderatuta ehuneko 10etik gorako igoera duten gastuak baimentzea.

n) Nahitaezko txostena ematea foru lege honen aplikazio eremuan dauden fundazioen estatutu-proiektuei buruz, bai eta estatutu horien aldaketei buruz ere”.

Zortzi. 11., 12., 13. eta 14. artikulua kentzen dira.

Bederatzi. Beste testu bat ematen zaio 15. artikuluari, eta honela gelditzen da:

“15. artikulua. Fundazioaren betebeharrak.

1. Foru lege honen menpeko fundazioen organo guztiak indarrean dagoen legediari eta estatutuei lotuko zaizkie jarduteko, eta etikaren, gobernu onaren eta profesionaltasunaren printzipioak bete-ko dituzte.

2. Fundazioek urtero emanen diote beren jardunaren berri Nafarroako Parlamentuari, lehendakariak eginiko agerraldi batean.

Nafarroako Parlamentuak fundazioaren organoen titularrak agertzeko eskatu ahalko du. Titularrak laguntza eman beharko diote Parlamentuari, eta eskatzen dien informazioa eskuratuko diote.

3. Foru lege honek arautzen dituen fundazioei urtero eginen zaie jardueraren auditoria, eta babesletzak aztertu eginen du, esleituta dauzkan eginkizunen barnean. Auditoria hori onetsi eta gero Nafarroako Parlamentuari igorriko zaio.

4. Fundazioaren jardueraren, bere patronatuaren, haien egintza, kontratu, hitzarmen eta dirulaguntza nagusien eta foru lege honetan aipatzen diren egintzen publikitate fundazioaren web orri baten bidez eginen da.

Aipatu atarian argitaratuko da, halaber, fundazioaren funtsetatik, edozein kontzepturengatik, 15.000 euro baino gehiago jasotzen dituzten pertsonen zerrenda, eta kopuru horren kontzeptua eta zenbateko zehatza. Aurrekotik salbuetsita daude fundazioarekin lan harremana duten pertsonen ordainsariak, zuzendariarenak izan ezik”.

Hamar. Lehen xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Lehen xedapen gehigarria.

Foru lege honetan xedatzen ez den orotan, fundazioei aplikatzekoa zaien foru araubidean ezarritakoari jarraikiko zaio; bereziki, Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legean ezarritakoari”.

Hamaika. Bigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Bigarren xedapen gehigarria.

Ezertan ukatu gabe Nafarroako Parlamentuaren kontrola, foru lege honetan eta legeetan oro har ezartzen den moduan, foru lege honen menpeko fundazioen jardunaren autonomia bermatzen da, gainerako edozein erakunde publikorekiko”.

Hamabi. Hirugarren xedapen gehigarria aldatzen da. Testu hau izanen du:

“Hirugarren xedapen gehigarria.

Foru lege honen menpeko fundazioak Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen aplikazio eremu subjektiboan sartuko dira”.

Hamahiru. Laugarren, bosgarren eta seigarren xedapen gehigarriak kentzen dira.

Hamalau. Lehen xedapen iragankorraren 1. apartatua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“1. Aurrezki kutxen gobernu-organoei eta entitate horien araubide juridikoaren gaineko beste alderdi batzuei buruzko uztailaren 9ko 11/2010 Errege Lege Dekretuaren babesean Nafarroan eratu diren izaera bereziko fundazioek, banku fundazioa edo fundazio berezia izateari uzten badiote, foru lege honetako xedapenetara egokitu beharko dituzte beren estatutuak, eta horretarako hiru hilabeteko epea izanen dute, banku fundazioa edo fundazio berezia izateari uzten diotenetik aurrera. Foru lege honek indarra hartzen duenerako jada banku fundazioa edo fundazio berezia izateari utzi dioten fundazioek, berriz, indar-hartze horretatik hiru hilabete igaro baino lehen egokitu beharko dituzte beren estatutuak foru lege honetako xedapenetara.

Estatutuak onesten direnean, patronatuko kideek beren karguak utziko dituzte eta hilabeteko epean patronatu berriko kideak hautatuko dira foru lege honetan eta fundazioaren estatutuetan ezarritako eran”.

Hamabost. Bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen iragankorrak kentzen dira.

2. artikulua. Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legea aldatzea.

2. artikulua 1. apartatuari j) letra gehitzen zaio. Honako testu hau izanen du:

“j) Aurrezki kutxen eraldaketatik sortutako fundazioak”.

Azken xedapen bakarra. Foru legeak indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

